

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2020 Foru Dekretua, martxoaren 24koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoaren berezko muga naturalak eta beste muga batzuk dituzten zonetan nekazaritza ustiategientzako laguntzen oinarri arauen aldaketa eta laguntza lerro horren 2020ko deialdia

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren muga naturalak eta Arabako Lurralde Historikoaren berezko beste muga batzuk dituzten eremuetak nekazaritza ustiategietarako laguntzen oinarri arauak, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan. Laguntza horiek "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" (13.1) eta "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestelako guneharri zuzendutako konpentsazio ordainketak" (13.2) neurri gisa daude identifikatuta Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programan. Aipatutako foru dekretuaren bidez, laguntza lerro horien 2016ko deialdia ere egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin ziren laguntza horien oinarri arauetako batzuk, eta onetsi, 2017rako deialdia.

2017ko maiatzaren 30ean, Europako Batzordeak, EE(2017) 3859 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren bigarren aldaketa onartu zuen. Aldaketa horrek zati batean eragin zion laguntza lerro horri eta, ondorioz, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretuaren bitartez, aldatu egin zen aipatutako aldaketara egokitzeko, eta, horrez gain, 2018rako deialdia onetsi zen.

Martxoaren 21eko 15/2019 Foru Dekretuaren bidez, berriro aldatu ziren oinarri arauak, eta 2019rako deialdia argitaratu zen.

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak 2020ko otsailaren 7ko txostenean adierazi zuenez, zenbait desadostasun antzeman dira laguntza horiek arautzen dituzten oinarrietan ezarritako eta Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 aldirako Programan eskatutako betekizunen artean; beraz, haiek aldatu behar dira, egokitu ahal izateko. Zehazki, orain gutxitze bat aplikatzen zaie nagusiki nekazari izatearen baldintza betetzen ez duten ustiategi elkartuei. Betekizun horiek ez dira eskatzen Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 aldirako Programan, eta, ondorioz, oinarri arautzaileetatik kendu egin behar dira. Era berean, nahitaezkoa da onuradunen betekizunak zehaztea pertsona juridikoen edo ustiategi elkartuen kasuan, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak betetzeari dagokionez.

Azkenik, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2020ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea aldaketa hauek egitea Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren eranskinak (Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretuak eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 15/2019 Foru Dekretuak aldatua) finkatu zituzten laguntzen oinarri arautzaileetan, zeinen xede baitira muga naturalak eta Arabako Lurralde Historikoaren berezko beste muga batzuk dituzten zonetako nekazaritza ustiategiak -"Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" (M13.1) eta "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko guneharri zuzendutako konpentsazio ordainketak" (M13.2).

1. Laugarren artikulua 2.a apartatua aldatzea, onuradun diren pertsona juridikoen eta elkar-teen ustiategiaren betebeharrak zehazten dituena. Honela geratzen da idatzita 2. apartatu hori:

4.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

a) Eskatzaileak aurreko 4.1 artikulua b), c), d), e) eta f) idatz zatiek pertsona fisikoei ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilen, titulartasun partekatua eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiek Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatuko da.

b) Gainera, gutxienez sozietateren kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 duten kideen ehuneko 50ek gutxienez izan beharko dute nagusiki nekazari.

Edonola ere, bazkideen artean tituluak eskualdatuz gero, aurretik adierazitako baldintza bermatuko dela aurreikusi beharko da estatutuetan edo bazkideen batzar orokorrean hartutako erabakiaren bidez.

Titulartasun partekatuko erakundeen kasuan, eta urriaren 4ko 35/2011 Legeak, Nekazaritza ustiategiaren titulartasun partekatuari buruzkoak, 5 eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, kideetako batek ez badauka nekazaritzako etekinik egotzita azken bi ekitaldietako PFE-Zaren aitortpenean, ulertuko da nagusiki nekazaria dela, baldin eta beste kideak betekizun hori betetzen badu.

c) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

d) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute horrelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

e) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

2. Hamaikagarren artikuluko 4. apartatua kentzea, ustiategi elkartuentzako gutxitzeak ezartzen dituena nagusiki nekazari izatearen betekizuna bazkide eta kide guztiek betetzen ez dutenean, eta gainerako apartatuak berriro zenbakitzea. Honela geratzen da idatzita artikulua hori:

11.1 Laguntzak urtero emango dira, urteko eskaera bakarrean adierazitako edo kontrolen ondoren zehaztutako ustiategiaren nekazaritza azaleraren arabera. Azalera hori kokaturik egongo da mendialdeetan edo mendialdeez bestaldeko guneharrietan.

11.2 Diruz lagundu daitekeen gehieneko azalera 30 hektarea izango da; horiei honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkie:

- Lehenengo 15 hektareei edo azalera txikiagoei laguntzaren ehuneko 100 ordainduko zaie.
- Hurrengo 10 hektareei laguntzaren ehuneko 60 ordainduko zaie.
- Hurrengo 5 hektareei laguntzaren ehuneko 20 ordainduko zaie.
- 30 hektarea baino gehiagoko azalerek ez dute laguntzarako eskubiderik sortuko.

Tarte bakoitzean, kalkulua egingo da zona behartsu bakoitzeko azalera kontuan hartuz, onuradunarentzat aldekoena den egoera (mendialdeko zonari laguntza) abiapuntu dela.

Ustiategi elkartuetan ordainketak nagusiki nekazariak diren bazkideak ugaritzen diren neurrian hasiko dira. Gehienez, bi NNI ustiategi elkartuko eta, gehienez, 60 hektarea ustiategiko.

Ondorio orotarako, lehenengo eta behin kontuan izango dira eskaera bakarria aurkezten den lurralde historikoan edo autonomia erkidegoan dauden azalerek.

11.3 Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da kontuan hartuz hektareako saria 297,00 edo 214,00 euro izango dela, hurrenez hurren, azalerek mendialdeetan edo beste muga natural batzuk dituzten zonetan izan.

11.4 Ez da laguntzarik emango eskatutako zenbatekoa 300,00 eurotik beherakoa bada.

Bigarrena. Dirulaguntza lerro honetarako deialdia onestea 2020. urterako (LGNEFek jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 75), honako ezaugarri hauekin:

– Laguntza lerroak:

– Mendialdeetako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M13.1 neurria).

– Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestelako gune behartsuei zuzendutako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M13.2 neurria).

– Epea eta tokia: Laguntza eskaerak aurkeztuko dira eskaera bakarria aurkezteko ezarri den epean, alegia, 2020ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, egun biak barne. Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren nekazaritzako Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako edozeinetan aurkeztuko da, hargatik eragotzi gabe urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa.

Eskaera bakarria aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 1.400.000,00 euro, “Gune behartsuak konpentsatzeko kalte-ordainak” izeneko 40.1.01.42.01.479.00.04 partidaren kontura, Arabako Foru Aldundiak 2020ko ekitaldirako indarrean duen gastu aurrekontutik.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horien zenbatekoa neurri bakoitzerako hasiera batean gorde den kredituarena bestekoa izango da, gehienez.

Finantzaketa: deialdi honetako laguntzak LGNEFk finantzatu ahal izango ditu ehuneko 75ean; horrela ez bada, laguntza nazional gehigarritzat hartuko dira, Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 aldirako Programan araututakoaren arabera.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatu titularrari ahalmena ematea dekretua garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren ebazpen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaileen kontra nahiz laguntzen deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurtsio guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2020ko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE